

Lan Kostuari buruzko hiru hileroko Inkesta

2023ko laugarren hiruhilekoa

Nafarroan, lan-kostua % 4,4 igo da 2023ko laugarren hiruhilekoan, 2022ko aldi berarekin alderatuta

2024ko martxoaren 15a

Soldata-kostua % 3,7 igo da, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta

LAN-KOSTUA

Urtetik urterako bilakaera. Enpresen langileko eta hileko lan-kostua 3.446,70 eurokoa izan da 2023ko laugarren hiruhilekoan Nafarroan. Hortaz, % 4,4ko aldakuntza gertatu da aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.

Erkidegoen arabera. Nafarroako kostua Estatuko batez besteko kostua baino 300,71 euro handiagoa izan da, eta hirugarren handiena da, Madrilgo Erkidegoaren (3.687,35 euro) eta Euskal Autonomia Erkidegoaren (3.643,50 euro) atzetik. Extremadurak, berriz, kosturik txikiena izan du: 2.501,06 euro langileko.

Kostuaren osagaiak. Nafarroako guztizko lan-kostutik, 2.596,56 euro *Soldata Kostuei* dagozkie (% 3,7ko igoera izan da aurreko urteko aldi berarekin alderatuta), eta 850,14 euro *Beste kostu batzuei*¹ (2022ko aldi berean baino % 6,3 gehiago).

Benetako lanorduko lan-kostua. % 4,5 igo da aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, eta 27,92 eurora iritsi da.


Espainia osoa. Enpresen lan-kostua 3.145,99 eurokoa izan da (% 5,0), soldata-kostua 2.359,38 eurokoa (% 4,0) eta beste kostuak, berriz, 786,61 eurokoak (% 8,0).

¹ *Beste kostu batzuen* barruan, soldataz kanpoko pertzepzioak eta Gizarte Segurantzarako nahitaezko kotizazioak sartzen dira



1. GRAFIKOA

Gutzizko lan-kostua eta urteko tasa Nafarroan



Iturria: Nastat, INEren Lan Kostuaren Hiru hileroko Inkestan oinarrituta.

Jarduera-sektoreak. Nafarroan, langile eta hilabete bakoitzeko lan-kosturik handiena Industrian erregistratu da, % 6,3ko igoerarekin. Eraikuntzan, lan-kostuak % 1,6ko igoera izan du, eta Zerbitzuen sektorean, berriz, % 3,7koa.

1. TAULA

Nafarroako lan-kostua, sektore ekonomikoen arabera. 2023ko laugarren hiruhilekoa

	GUZTIRA		INDUSTRIA		ERAIKUNTZA		ZERBITZUAK	
	Euroak	Urteko tasa	Euroak	Urteko tasa	Euroak	Urteko tasa	Euroak	Urteko tasa
Guztira	3.446,70	4,4	3.856,02	6,3	3.549,21	1,6	3.259,54	3,7
Soldata	2.596,56	3,7	2.866,96	5,3	2.553,42	1,2	2.481,19	3,3
Beste kostu batzuk	850,14	6,3	989,06	9,5	995,79	2,7	778,35	5,1

Iturria: Nastat, INEren Lan Kostuaren Hiru hileroko Inkestan oinarrituta.



CONTACTO | HARREMANETARAKO


estadistica@navarra.es

848 42 34 00

LANALDIA

Batez besteko **lanaldia Nafarroan**. Langile guztientzat itundutako hileko orduak 149,7 dira. Ordu horietatik, 123,5 benetakoak dira, eta gainerakoak, berriz, lan egin gabeak.

Lanaldia Spainian. Espainia osoan, itundutako orduen batezbestekoa 151,2 da. Ordu horietatik, 125,9 benetakoak dira, eta gainerakoak, berriz, lan egin gabeak.





OHAR METODOLOGIKOA

Lan Kostuari buruzko Hiru Hileroko Inkesta (LKHI) hiru hilez behin egiten den eragiketa jarraitua da, eta haren funtsezko helburua da langile eta hil bakoitzeko batez besteko lan-kostuaren, benetako lanordu bakoitzeko batez besteko lan-kostuaren eta lan egindako eta lan egin gabeko denboraren bilakaera ezagutzea.

Estatistikako Institutu Nazionalak egiten duen eragiketa estatistikoa da eta honako ezaugarri nagusi hauek ditu:

- **Inkesta mota:** jarraitua; hiru hilean behin egiten da.
- **Oinarria:** 2020.
- **Populazio-eremua:** Gizarte Segurantzarako kotizazio-kontuak. Erregimen Orokorra: CNAE-09ren B-S atalak eta Itsasoko Langileen Erregimen Berezia: itsas garraioa (CNAE-09ren 50. dibisioa).
- **Eremu geografikoa:** lurralde nazional osoa.
- **Emaitzen erreferentzia-aldia:** hiruhileko naturala.
- **Informazioaren erreferentzia-aldia:** hilabete naturala.
- **Laginaren tamaina:** 28.500 establezimendu, hileko 9.500 establezimenduko hiru azpilaginetan banatuak.
- **Laginketa mota:** esleipen optimoa duen ausazko laginketa estratifikatua. Inkesta zehatza 500 langiletik gorako establezimenduetarako.
- **Bilketa-metodoa:** establezimenduak zuzenean betetako galdetegia.

Informazio gehiago izan nahi izanez gero, Estatistikako Institutu Nazionalaren webgunean kontsulta daiteke adierazle honen metodologia.



INFORMAZIO GEHIAGORAKO

Nastat

Lan Kostuari buruzko hiru hileroko inkesta. 2023ko laugarren hiruhilekoa.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

